

HERRIKO KULTUR IZAERA SUSPERTZEKO EKIMENA:

EGURREZKO KUPELA HERRIKO PLAZAN GAUZATZEKO EGITASMOAREN BERRI

GOLDEA herri Kirol Elkarteak, azken 18 urteetan zehar, makina bat ekintza eta aktibitate burutu ditu herrian: baserrigintzaz, jaietaz edota sagardogintzaz. Honen lekuko izan dira ere Astigarragako jaietako Santa eguneko antolaketa lanak.

Ildo horri ekiten, 2009ko jaietan eta zehazki Santa Ana egunean, Asturiaseko MANUEL Sanchez kupelegilearekin gaztainondoeko 10.000 litroko kupel bat egiteko egitasmoa bideratzeko konpromisoa lotzeko urratsak emanak ditu: kupelaegilearekin, Sagarduneko Partzuergokideekin; zenbait sagardogilerekin, udaleko teknikariek eta ordezkariekin, hain zuzen ere.

Egiteasmo honen ezaugarriak honako ataletan zehazten da:

1.- MANUEL Sanchez Kupelegileak, 2008ko azaroan kupela egiteko enkargua jasoko du eta 2009ko uztailaren 26an Astigarragako enparantzan kupela erabat bukatzeko bitarteko eta ardurak hartzen ditu bere gain.

2.- Goldea Herri Kirol Elkarteak egitasmo hau autofinantziagarria izateko helburuz jarriko ditu bere ahalegin guztiak. Bide batez, aipatutako egiteasmoari aurre egiteko gastu guztien aurrekontua 13.000 eurotan zehazten du Goldeak, honako desgloseaz:

2.1.- Kupelegilearekin zehaztutako kupelaren neurriaren arabera (10.000 litrokoa), litroko euro bat, alegia 10.000€ ordainduko dizkio MANUEL Sanchez kupelegileari.

2.2.- Asturiasetik egingo den kupelaren garraioa eta Santa Ana eguneko lan prestaketak eta ordainsariak 3.000 eurokoa izango da.

2.3.- Santa Ana egunean, kupela bukatuta egongo denez, arratsaldeko 20:00etan kupelaren publiko aurreko enkantea egingo da. Enkantea hartzeko eskaintzaren haserako diru kopurua 6.000 eurokoa izanik. Herriko sagardogileak enkante honetan parte hartzeko informazio zabalpena garaiz bermatuko du Goldeak.

2.4.- Goldeak, kultur ekintza esanguratsu hau babesteko, laguntzaileak bilatuko ditu eta horiengandik publizitatearen bitarteko laguntza ekonomikoa jasoko du.

3.- Kupela egitea jarduera hau jaietako programaren barne sartuko da, eta artisauen langintzaren baitan, eguneko ordainsaria jasotzeko aukera izanik, egitasmoaren gastuek hala eskatuta.

Astigarragan, 2008ko urriaren 15a


GOLDEA, Herri Kirol Elkarte

**ASTIGARRAGAKO HERRIKO KULTUR IZAERA SUSPERTZEKO EKIMENA:
10.000 LITROKO SAGARDO KUPEL BATEN GAUZAKETA**



SAGARDUN PARTZUERGOAREN ESKAINTZA

Egitasmoaren jatorria:

Astigarragako Goldea Herri Kirol Batzordeak, baserriaren, sagardoaren eta herri kirolen aldeko azken hemezortzi urteetako jardueren eta ekimenen barne, **10.000 litroko, gaztainondo egurrez, sagardo kupel baten buruketarako proiektua martxan jarri du dagoeneko**. Ekimen honen gauzatze publikoa, Astigarragako Santio eta Santa Ana jaietan (2009ko uztailaren 25ean eta 26an bitartean) izango da.

Proiektuaren gauzaketa:

Proiektu honen enkargua Asturiasko Jose Manuel Sánchez kupelgile adituari egin zaio, zeinak ondorengo zazpi hilabeteetan egurra egokituko du, kupela zehaztuko du eta behar diren materialak eta tresnak prestatuko ditu ekimen herrikoi hau errealitatea bihurtzearren, datozen herriko jaietan eta Foruen enparantzan.



Argazki oina: Goldea elkarteko ordezkariak Jose Manuelek Asturias-era egin herriko bisitan

Laguntza eta babesa:

Ekimen adierazkor eta esanguratsu honen gauzatzea herriko sagardogileen eta elkarten laguntzaz eta Astigarragako Udalaren oniritziz burutzen ari da. Era berean, sagardo kupel herrikoi honen proiektuak SAGARDUN Partzuergoaren babesa jaso du eta erakunde berak Sagardo Etxea azpiegituraren barne kokatzea bidezkotzat jotzen du, izan ere, urtero ospatzen den *Sagardo berria* ekitaldian kupela hau erabiliko da urteko sagardoa dastatzeko.

Proiektuaren gastuak eta diru iturriak:

Kupela osatzeko bitarteko guztiak kontuan hartuz (egurra, kupelgilearen egiteko eta prestaketak, garraioa eta osaketa lanak herriko enparantzan, besteak beste) **13.000 euro**tako aurrekontuari aurre egiteko ardura eskatzen du. Hortaz, Goldea Herri Kirol Elkarteak egitasmo hau errealitatea bihurtzeko helburuz jarriko ditu bere ahalegin guztiak.

Aipatutako gastuen eta diru-iturrien aurrekontuaren zehetasunak honako hauek dira:

SAGARDO KUPELA GAUZATZEKO AURREKONTUA			
GASTUAK		DIRU ITURRIAK	
Kupelaren materialak eta esku lanak nahiz prestaketak	10.000€	SAGARDUN partzuergoaren ekarpena	6.000€
Asturiasetik materiala garraiatzea eta, uztailearen 25ean eta 26an egunetan, kupelaren osatze lanak	3.000€	Goldeak bultzaturiko autofinantzaketa ekimena: kizkien salmenta	1.500€
		Herriko Aurrezki Kutxen eta enpresen babesa eta diru-ekarpena	3.500€
		Kupelarekiko artisautza jarduerari dirulaguntza herriko jaietan	2.000€
GUZTIRA	13.000€		13.000€

SAGARDUN Partzuergoari kupela eskuratzeko eskaera:

Txosten honetan azaldutako edukiaren arabera, **SAGARDUN Partzuergoak** proiektu hau babestea premiazkotzat jotzen da, jakinda ere, kupela hau Sagardoetxean txertatzeak aberastasuna eta sendotasuna ematen dizkiola ekipamendu horri.

Beraz, martxan dugun ekimen honen urratsen jarraipena gauzatzearren, **SAGARDUN Partzuergoari** kupelaren buruketarekiko adostasunaren akordioa hartzea eta kupelaren jabea egiteko 6.000 euroko diru ekarpena (BEZ-a gehituta) luzatzeko erabakia hartzea eskatzen dizkio Goldea Herri Kirol Batzordeak.

Aurretik bildutako akordioa eta erabakia hartzearekin batera, ondorengo hilabeteetan Goldea Herri Kirol Batzordeak zabalduko dituen ekimenaren agerraldietan, **SAGARDO Partzuergoren** babesa eta jabetzaren berri emateko konpromisoa hartzen du.

Astigarragan, 2009ko apirilaren 2a



Gabriel Lizeaga

GOLDEA Herri Kirol Batzordearen izenean

ASTIGARRAGA

Las claves de una temporada única

Un taller de kirikoketa, donde se reproducirá el sonido de las mazas que golpean el fruto, una de las novedades. Se construirá en directo una kupela de 10 mil litros en fiestas

18.01.09 - MANJARRÉS/CRESPOJ ASTIGARRAGA.

DV. Aunque de manera oficial la apertura de la temporada del txotx ha tenido lugar esta semana de la mano del pelotari Aimar Olaizola -auténtico experto en estas lides, ya que hace unos años también fue el máximo protagonista en el inicio de la temporada en Hernani- será realmente desde el próximo viernes, día 23, cuando tendrá lugar el pistolotazo real de salida a la temporada. Será cuando empezará a notarse en las calles de Astigarraga, aunque bien es cierto que se espera que la llegada masiva de visitantes tenga lugar en el mes de marzo.



Un hombre observa el aspecto de la sidra en el día de la inauguración de la temporada, en Petritegi. /LAURI

Una temporada sidrera que ha llegado con alguna novedad, como las encuestas que entre la ciudadanía está previsto formular a lo largo de la temporada. Además de ello, este año se propone la probaketa y el taller de kirikoketa. La primera es una propuesta de cata guiada en sidrería. Consiste en visitar la sidrería y realizar un cata guiada para conocer de primera mano las peculiaridades del producto de esta temporada, una información que se constatará mediante la degustación de la nueva sagardo.

La kirikoketa, por otra parte, es un taller mediante el cual se enseñará a reproducir el sonido onomatopéyico que producen las mazas verticales con las que se golpea el fruto, siguiendo una cadencia y un ritmo que recuerda al toque de la txalaparta.

Otro de los atractivos de este año será la construcción en directo de una kupela que podrá albergar 10.000 litros. Esto se hará durante las fiestas de Santiago organizado por Goldea y a cargo de un artesano asturiano, José Manuel Sánchez, que durante los próximos siete meses adecuará la madera de castaño, estructurará la hamaca y preparará los diversos materiales y utensilios para hacer realidad esta iniciativa popular.

Joxe Ángel Goñi, representante de Sagardun, afirmó que «es la XVI edición que se lleva a cabo la temporada del txotx en Astigarraga y la cosecha de este año se puede calificar como histórica por su cantidad y es que se han producido alrededor de 10 millones de kilos de manzana del país y otros 8 de fuera. A esto han contribuido factores como el buen tiempo que hemos tenido y las temperaturas suaves. Además, siguiendo el proceso de los manzanos, ésta se preveía como una buena cosecha. En cuanto a la sidra, ha llevado una fermentación excelente, es más clara que el año pasado con toque verde y deja frescor en la boca. Tiene cierto sabor cítrico».

Zorione Etxezarraga, teniente de Alcalde, explicó, por otro lado, que «la temporada del txotx es un ritual lleno de simbolismos y desde el Ayuntamiento pretendemos apostar fuerte sobre cómo reforzar la identidad del municipio. Prueba de ello es que en la elaboración de los Presupuestos hemos previsto la construcción de un Tolare, próximo a la Casa de Cultura. En cuanto a medidas para preservar la armonía de la fiesta: más autobuses y refuerzo de los servicios de limpieza. Se van a llevar, asimismo, a cabo encuestas entre los vecinos durante la temporada para evaluar cómo está yendo. Hay que gozar de la fiesta, pero respetando el descanso de los demás».

Goñi explicó, además, que la temporada del txotx es fruto de un trabajo conjunto y que «Sagardoetxea somos todos. Participan en ella las asociaciones culturales del municipio, Sagardun, el Ayuntamiento y los visitantes. No es sólo un museo sino que es un centro gastronómico, cultural y turístico con mucha

ASTIGARRAGA

10.000 litroko kupel baten buruketaren proiektua martxan jarri da herrian

29.01.09 -

DV. Goldea Herri Kirol Batzordeak, baserriaren, sagardoaren eta herri kirolen aldeko bere jardueren eta ekimenen barne, 10.000 litroko, gaztainondo egurrez, kupel baten buruketarako proiektua martxan jarri du dagoeneko.

Ekimen honen gauzatze publikoa Astigarragako Santio eta Santana jailetan (2009ko uztailaren 25ean eta 26an bitartean) izango da. Proiektu honen enkargua Asturiasko Jose Manuel Sánchez kupelgile adituari egin zaio. Jose Manuel ondorengo zazpi hilabeteetan egurra egokituko du, kupela zehaztuko du eta behar diren materialak eta tresnak prestatuko ditu ekimen herriko hau errealitatea bihurtzearen, datozen herriko jailetan eta Foruen enparantzan. Azkenik, aipatu zenbait sagardogileren, herriko elkarteren laguntzaz eta Udalaren oniritziz burutzen ari dela kupela herriko honen proiektua. Era berean, ekimen honek Sagardun Partzuergoaren babesa jaso du.

Erakunde berak, bestalde, Sagardo Etxea azpiegituraren barne kokatzea bidezkoztat jotzen duela azaldu du.



Irudian Asturiasko kupelgilearen tailerra.